

KOMEDIA FISIKOA

Slapstick, istripuaren komedia

Irakaslea: Élise Ouvrier-Buffer

Urriak 20 eta 21 | 10:30etik 14:30era · 16:00etatik 18:00etara
12 orduko ikastaroa Lekuonan, Errenteria.

Istripuetan oinarritutako umore fisikoan interesa duten esparru guztietako artista profesionali zuzendua, hala nola zirkuko artistei, dantzari, mimoei, titiriteroei, musikariei, abeslari, magoei, aktoreei, etab.

Ikastaroari buruz



Irrist egin, huts egin, estropezu egin, korapilatu, talka egin, saihestu, zaplaztekoa eman, borrokatu, erori... Ikastaro honetan umore fisikoaren eta ustekabeko *gagen* ikerketa bat egingo da. Erreferentzia tekniko gisa, zinema mutuko aktoreek erabiltzen zituzten *gag* fisikoen errepertorioa aztertuko da, mota guztietako ideiak atera baitaitezke hortik. Gure erronka zera izango da, pertsona bakoitzaren irudimen traketsa eta zentzugabekeriarako talentua erakustea. Erreakziorako aitzakia gisa, katastrofeak, imintzio ergelak eta zorte txarra erabiliko dira. Hortaz, teknika

lantzeko joko zelai zabal bat uztartuko dugu.

Helburuak:

- Trebetasun traketsak garatzea, eta eraginkortasunik ezaz eta istripuez gozatzea.
- Istripuak eragiten dituzten ekintzak aztertzea, une, erritmo eta egoera ezberdinetan hainbat baliabide erabiliz.
- Istripuarekin lotutako konbikzio-, erreakzio- eta berreraikitze-gaitasunak eskuratzea.
- Entrenamenduan independentea izatea, pertsonaiaren beharretara egokitzen den errutina bat sortuz, entseatuz eta exekutatzuz.

Élise Ouvrier-Buffer



Lanbidez pailazoa, Élisek, zorionez, Michel Dallaire aurkitu zuen, eta haren bitartez ezagutu zuen ustekabeko jokoak duen irismen osoa. Izan ere, ikerkuntza-lanetan eta irakaskuntza-metodoaren garapenean haren laguntza jasotzeko pribilegioa izan zuen. Élisek judoa praktikatu zuen, bai eta dantzaren ia estilo guztiak ere, eta, azkenean, izatez, baldarkeria bilatzen ari zela konturatu zen.

Harrezkero, denbora gehiena ikertzen eman du, neka ezinik, zorte txarraren zientzia horren sekretu guztiak aurkitzeko.

Aldizkako entrenamendua ematen die ospitaleetan aritzen diren pailazoei, bai eta antzerki, zirku eta kale konpainiei ere, zuzendari eta *coach* gisa. [Argibide gehiago](#).